

ENPRESEN konfiantza

2019KO 1. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


2019KO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2019ko lehen hiruhilekorako** dituzten aurreikuspenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekoko balio berberak sumatu baitira. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenei dagokienez, % 58,8k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 13,9k hobetu egingo dela. Ikus daitekeenez, ikuspegi baikorra da nagusi, eta, geroago ikusiko dugunez, aztertutako gainerako aldagai guztietan ere islatzen da baikortasun hori.




1 FAKTURAZIOA

Enpresek fakturazioari buruz dituzten aurreikuspenak aldekoak dira, **2019ko lehen hiruhilekoari begira**. Hala, % 52,7ren iritziz, fakturazioan ez da aldaketarik egongo, eta % 31ren ustez, hobera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa espero duten enpresak % 16,4 dira.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta **2019ko lehen hiruhilekoan** espero den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 60,6k uste du ez dela aldaketarik egongo, eta % 21,2k hobera egingo duela. Laginaren % 18,1ek baino ez du uste jarduerak okerrera egingo duela.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Emaitzek diote eskabideen bolumena hobetzeko aurreikuspen argia dagoela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 58k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 27,4k hobera egingo duela. Enpresen % 14,6k besterik ez du uste eskabideen bolumenak behera egingo duela.




4 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestagileen % 74,3k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **lehen hiruhilekoan**. Gainerako enpresetatik, % 14,6k uste du prezioak handiagoak izango direla, eta gainerako % 11,1ak, berriz, txikiagoak izango direla.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunari buruzko aurreikuspeni erreparatuta, erantzunen % 68,6ren arabera ez da aldaketarik egongo; enpresen % 15,9k uste du handiagoa izango dela eta % 15,5ek errendimendu txikiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 71,7k uste du eutsi egingo diotela **2019ko lehen hiruhilekoan**. % 17,3k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 11,1ak uste du behera egingo duela.



7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 76,5ek erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 17,3k langile-taldea handitzeko itxaropena du eta % 6,2k guztiz kontrakoa (plantilla murriztu egingo duela)..




2018KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, **54,2ko** konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoan izandako balio berbera. Interpretazioa hauxe da: ekonomiaren bilakaeraren inguruan enpresek duten ikuspegia ez da aldatu, **2019ko lehen hiruhilekoari** dagokionez. Gainera, indizearen balioa 50etik gora dagoenez, hedatze-eremuan gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin bat. Espainian, esaterako, 53,7ko datua lortu zen urrian, eta Eurogunean 52,4koa azaroan).

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 60k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 21,8k hobera egin duela. % 18,2ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 75 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 8,8k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOBRAZTEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 81,9rentzat, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 12,5en esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5,6k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 75ek erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 16,2k dio hobetu egin dela, eta % 8,8k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2018AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, azertu ditugun azken bi hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.

Enpresen aurreikuspenak



	Fakturazioa	Jarduera	Eskabideak	Prezioak	Errentagarritasuna	Enplegua	Inbertsioa
2018ko 4. hiruhilekoa	59,7	54,4	57,4	47,9	47,3	53,2	53
2019ko 1. hiruhilekoa	57,3	51,5	56,4	51,8	50,2	55,5	53,1



EKONOMIAREN DEZELERAZIOA



13 | DEZELERAZIOA: ARRAZIOIAK ETA ATZERALDIA IZATEKO PROBABILITATEA

Ondorengo irudietan dezelerazioaren arrazoiak agertzen dira, gure enpresen laginaren arabera, baita dezelerazio hori atzeraldi bilakatzeko probabilitatea ere.

Ikus daitekeenez, kausek jatorri politikoa dute eta atzeraldia gertatzeko probabilitatea, oraingoz, txikia da (% 50etik beherakoa), inkestari erantzun diotenen iritzian



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
